

*“Lasaitasuna
bermatuz, gehiago
gozaten dut
bizitzaz”*



Seguros Bilbao-n profesional bat izango duzu ondoan zuri entzuteko prest egongo dena, zure arazoetan inplikaturiko dena eta konponbide indibidualizatuak eskainiko dizkizuna.

Konfiantzazkoa eta konprometitua, **zure aholkulari pertsonala.**

 **Seguros
Bilbao**

*Folleto hau informatzailea da. Beraz, bakarrik izango dira baliozkoak polizan espresuki agertzen diren berme eta zerbitzuak.

*“Familia
babestea da
bizitzako gure
lehentasuna”*

bizitza 



 **Seguros
Bilbao**



Bizi osorako lasaitasuna

Uste baduzu hobe dela prebenitzea dena zoriaren mende uztea baino, **Bizitza+** da zuretzako poliza egokiena eta, zuhurrena, gaixotasun edo istripu baten ondorioz sor daitezkeen gastuei aurre egiteko.

Gertatzen dena gertatzen dela, aseguru honek zure eta etxekoen bizi-maila bermatzen du aldi-baterako ezgaitasun, ezintasun edo heriotza kasuetan, eta zure eta etxekoen osasuna eta bizi-kalitatea ere zaintzen ditu.

Eskaintzen dituen berme eta osasun zerbitzuekin, aseguru honen bidez babesturik zaudete zu eta etxekoak eta baita zure ondarea ere.

Segurtasuna eta askoz gehiago

Poliza bakarrean eta erabateko malgutasuna eskainiz, Bizitza+ aseguruak hainbat aukera ematen dizkizu zure eta etxekoen segurtasun ekonomikoa bermatzeko.

- **Heriotza edo ezintasuna.** Kontrataturako kapitalak bikoiztu egiten dira istripuren bat izanez gero, eta hirukoiztu, zirkulazio istripua bada.
- **Gaixotasun larria.** Kontrataturako kapitalaren %50erainoko aurrerakina, heriotza berme gisa.
- **Aldi-baterako ezgaitasuna.** Istripu edo gaixotasunen bat izanez gero, adostutako kopurua ordainduko da.
- **Ospitaleratzea.** Kasu honetan, eguneroko kalte-ordaina ordainduko da.
- **Bihotz-errehabilitazioa.** Horrelako gaixotasunetan espezializatutako zerbitzu mediko asistentzial osoa bermatzen da.
- **Laguntza juridikoa (heriotza edo ezintasuna ematen den kasuetan).** Aholkularitza eta beharrezkoak diren tramite administratiboetarako laguntza: arlo fiskala, ondorengotzak, herentziak, ondasunen inbentarioa, subrogazioak, e.a.

Bilbao Salud txartela

Bizitza+ aseguruak kontratatuz, zuk eta zure etxekoek osasun arloko zerbitzu baliagarriak jasoko dituzue.

Hortzetako osasuna

Espainia osoko 2.000 espezialista baino gehiago biltzen dituen koadro medikoa. Zenbait zerbitzu dohainik jasoko dituzu, eta deskontuak izango dituzu ahoko eta hortzetako hainbat tratamendutan.

Orientazio medikoa

Telefono bidezko arreta medikoko zerbitzua, diziplina anitzeko lantaldean integratutako espezialisten eskutik. Zure zerbitzura eguneko 24 orduz.

Bigarren iritzi medikoa

Aukera duzu bigarren diagnostiko bat eskatzeko, tratamendu egokiena jasotzeko eta tratamendu horiek ematen dituzten zentro mediko onenak (Estatuako edo atzerrikoak) zeintzuk diren jakiteko.

Osasuna eta ongizatea

Deskontu interesgarriak tratamendu eta terapia osagarrietan, hala nola, termalismoa, talasoterapia, nutrizioa, miopiaren kirurgia, logopedia, pertsona nagusien zaintza, e.a.